

GORROTO MEZUEN ETA ARRAZAKERIAREN GORAKADAREN AURREAN UDALAK HARTU BEHARREKO NEURRIAK DIRELA ETA KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urtarrilaren 22an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Barne Ministerioaren azken ikerketaren arabera, Gipuzkoa dago Espainiako Estatuko gorroto-delituen buruan, Nafarroaren eta Bizkaiaren aurretik, eta bertan, arrazakeria eta xenofobia kasuen gorakada nabarmena izan da. Donostiaren kasuan, kezkagarriak dira pertsona migratzaileen giza eskubideen alde lan egiten duten kolektibo sozialekiko ostikatze eta mehatxu mezuak. Kezkagarria da, halaber, espazio publikoan migratzaileen aurkako mezuekin eta mezu islamofoboekin pintadak ugaritu izana.

Testuinguru horretan, joan den abenduan proposamen bat egin genuen, egoera horiei aurre egiteko estrategia eta sentsibilizazio-kanpaina bat gara zitzakeen aurrekontu-sail batekin. Beste behin ere, udal gobernuak horrelako ekimen sozialei bizkarra ematea erabaki zuen eta aste honetan berriro ikusi dugu nola agertu diren mezu arrazistak, baita etxerik gabeko pertsonak artatzera bideratutako instalazioetan ere, *Hestia* eguneko zentroa kasu.

Baina mezu xenofobo zein arrazistak orokortzen ari diren honetan antolakuntza eta aldarri antifaxistak ere presente daude eta, adibide moduan, urtarrilaren 4an Egiako auzotarrek mezu positiboen mural margoketa. Era berean, behin baino gehiagotan jarri dira norbanakoak zein elkarteak EH Bilduko udal taldearekin hiriko espazio publikoan azaldutako pintada xenofoboak salatzeko eta elkarlana sustatu dugu udal gobernuarekin haiek ezabatzeko.

Jakin badakigu udalak baduela arrazakeriaren aurkako zurrumurruen kanpaina baina uste dugu estrategiak egungo garaietara egokitzea berebizikoa dela. Honen inguruan delegatua interpelatu dugunean adierazi digu gertakari arrazistak, xenofoboak, antigitanoak eta LGTBI fobikoak kudeatzeko protokoloa lantzen dagoela, baina kontuan izan behar dugu udala urteak daramadala protokoloa eguneratu gabe eta aniztasun kultureko sailaren programak indartu gabe. Esate baterako, duela urte batzuk martxan jarritako Donostiar berriei harrera egiteko programa desagertu egin da eta departamenduko aurrekontua jaitsiz joan da.

2024ko azaroan Donostian egindako Kulturarteko Hirien Topaketan hainbat gai landu ziren, hala nola kultura-aniztasunari buruzko narratibaren eraikuntza, gauzatutako ekintzen eragina neurtzeko

indizeak eta kulturen arteko markoak, planak edo estrategiak diseinatzeko gakoak. Era berean, topaketan esperientziak eta jardunbide egokiak partekatu ziren, aniztasunak bizikidetzat indartzeko duen ahalmena aztertze. Hainbat hitzaldi egin ziren Atzerriartasun Erregelamenduaren Erreformaz eta Gizarteratze Ministerioaren Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako [Herriartasunari eta Inklusioari buruzko Esparru Estrategikoaz](#) eztabaidatzeko, eta alkateak konpromisoa hartu zuen bide horretan lan egiteko.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostian ematen diren gertakari arrazistak, xenofoboak, antigitanoak eta LGTBI fobikoak kudeatzeko protokoloa lantzeko mahai bat osatu dezala, interesa duten eragileek, elkarteek eta talde politikoek protokoloaren lanketan parte hartu dezaten.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hiriko espazio publikoan agertzen diren mezu arrazistak kudeatzeko bideak proposatu ditzala.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, aniztasun kulturalaren zuzendaritza indartzea, eta indargabetu zituen hainbat proiektu berreskuratuz, tartean harrera eta ongi etorria ekitaldia berreskuratuz Donostiara etortzen diren pertsona orori.

Donostian, 2025eko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia